


## UDAL BATZORDEEN BERRI

| LAN-TALDEA                                  | AZTERGAIAK  | GARATUTAKOA  | HURRENGORAKO  |
|---|---|--|---|
| <b>Ekimen sozio-kulturalak (2020/03/10)</b> | Gizarte Langilearen ordu aldaketa   | Martxoaren 26tik aurrera Gizarte Langilea den Bihotza Esnaola Edo-ren ordutegia aldatuko da, ostegunetan 9:00tatik 13:00tara izango delarik. Honen jakinarazpena prestatu da.  | Jakinarazpena herrian banatu.                       |
|   | J.M. Iparragirrenen aitortza ( <b>ekintza hau bertan behera gelditu zen</b> ) | Apirilaren 6an J.M. Iparragirre-ren oroitzapenerako ekitaldi ofiziala egingo da Zozabarron. Bertan Itsasoko Udala, Urretxuko Udala, eta Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria izango direlarik besteak beste. Ekitaldi ofizialaz gain, herrikoen artean Iparragirreri buruzko ekitaldi / erakusketa bat egitea aipatzen da.   | Herriko ekitaldi / erakusketaz mintzatzan jarraitu. |
| (2020/05/12)                                | Euskara klaseak   | 2020-2021 ikasturtean euskara ikasteko aurre-matrikula epea ireki da eta honen jakinarazpena egin da. Bestalde, orain euskara ikasten ari direnei, irakasleak ere aipatuko die.  | Jakinarazpena banatu.                               |
| Hurrengo saioa:<br>2020/05/26               | Smart village   | “Smart village” herri txikiei zuzendutako programan parte hartu da, Siadecok egindako txostenean oinarrituz.   |   |
|   | Alaia Martinen irratsaioa   | Alaia Martinek 10 herri txikiei buruzko irratsaio bat izango du, Herritmiak, eta saioetako bat Itsason izatean proposatu digu. Irratsaioaren iraupena ordu bateko izango da. Bertan, herriko datuak, toponimia, sarrera, herriko kantu gogokenak, elkarrizketak (hiru bloketan banatuta egongo dira, bakoitzean 1 edo 2 pertsona elkarrizketatuko dira), Ahotsak.eus-eko grabazioa, herriko historio edo bitxikeriren bat, ... | Grabaketak ekainak 2, 16:00tan                      |



| LAN-TALDEA  | AZTERGAIK  | GARATUTAKOA  | HURRENGORAKO   |
|---|--|--|--|
| <b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2020/05/19)</b><br><br>Hurrengo saioa:<br>(2020/06/03) | Alarma egoerako epealdian Udalean egindako lanen berri | Alarma egoerako epealdian Udalak aurrera eramandako lanen berri jakinarazpen batean jaso da eta herritarrei zabalduko zaie, momentu honetan Herri Batzarra egitea ezinezkoa denez. |  |
|   | Eudel-etik jasotako gomedio eta neurriak               | COVID19-aren inguruan Eudeletik jasotako informazioa irakurri da eta herrian nolako eragina izaten ari den da (kultura, festak, udalekuak, espazio publikoen erabilera,...)        | Gaur gaurkoz hartu beharreko neurriak Azpiegitura eta Ingurumen batzordean erabaki |

| LAN-TALDEA  | AZTERGAIK                        | GARATUTAKOA   | HURRENGORAKO                                      |
|---|----------------------------------|---|---|
| <b>Azpiegitura eta ingurumena 2020/05/20</b><br><br>Hurrengo saioa:<br>(2020/06/10) | Alegiako instalazioak prezintatu | Oraindik gauden fasean erabilera okerrak saihesteko, jolas-parkea eta frontoia itxi egingo dira. Komunak irekita mantenduko dira, Osasun Sailaren irizpideen arabera, higiena mantendu dezakegun heinean. | Hurrengo fasera pasatzerakoan berrikusiko da      |
|   | Musukoak                         | 70 urtetik gorakoentzat bina eta gainerakoei, 6 urtetik gorakoentzat, bana, etxez etxe banatuko dira eta Itsasoko gunekoei Udaletxetik pasatzeko esango zaie.   |   |
|   | Aurrekontuen egokitzapena        | Sarrera jetsiera 65.000€-takoa izango da, batez ere Aldunditik jasotzen den Foru Fondoaren jeitsieragatik, eta Baserri Bideen konponketarako deialdia bertan behera geratu delako.                        | Aurten egin ahal izango diren inbertsioak zehaztu |